

IRAKASKUNTZA-GIDA

2019/20

Ikastegia

163 - Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GIMADE10 - Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa + EAZ

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25825 - Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak irakasgaiaren helburua ikasleari produktugilearen erabakien eta kontsumitzailearen teoriaren oinarriak erakustea da. Hasiera emateko lehia perfektuko oreka partziala ikusten da, non ondasunen prezioak eta produkzio faktoreenak emanak dauden. Ondoren, irakasgaiaren helburua enpresaren hautapenak aztertzea da, nola erabakitzen duen zenbat produzitu eta horrela hasieran ikusitako merkatuaren eskaintza lortuko da. Azkenik, kontsumitzaileen jokaera aztertzen da. Errenta eta ondasunen prezioak emanik nola maximotzen duen baliagarritasuna ondasunen eskaria lortu ahal izateko. Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak irakasgaiak etorkizunean graduatua izango denari tresnak ematen dizkio enpresen eta kontsumitzaileen jokaerak ulertu ahal izateko, bere jarduera profesionalean oso baliagarria izango zaiona.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Kurtsoak ondorengo gaitasun espezifikoak lortzen lagunduko du:

- Hoberenatzearen printzipioan oinarritzen diren eredu matematikoen bitartez kontsumitzailearen eta lehia enpresaren jokaeraren ezaugarriak zehaztu.
- Eskari eta eskaintza funtzioak lortu baliagarritasun eta mozkin funtzioen maximizazioaren ondorioz.
- Emaitzak formalizatu eta ekonomikoki azaltzen jakin.
- Aldagai ekonomiko garrantzitsuenek emaitzetan dituzten eraginak aztertu estatika konparatiboaren analisiaren bitartez.

Honetaz gain ondorengo zeharkako gaitasunak landuko dira:

- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Idatzizko komunikaziorako gaitasuna.
- Pentsamendu analitiko eta hausnarketa kritikorako gaitasuna.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Sarrera: mikroekonomia eta eredu ekonomikoak.
2. Ekoizpena.
 - Teknologia.
 - Produkzioa faktore aldakor bakarraz.
 - Produkzioa bi faktore aldakor erabiliz.
 - Eskala etekinak.
3. Ekoizpen kostua.
 - Kostuen neurketa.
 - Epe laburreko kostua.
 - Epe luzeko kostua.
 - Epe luzeko eta epe laburreko kostu kurbak.
4. Mozkinen maximizazioa eta eskaintza lehiakorra.
 - Konkurrentzia osoko merkatuak.
 - Mozkinen maximizazioa.
 - Sarrera marjinala, kostu marjinala eta mozkinen maximizazioa.
 - Ekoizpen mailaren erabakia epe laburrean.
 - Lehia enpresaren epe laburreko eskaintza kurba.
 - Merkatuko eskaintza epe laburrean.
 - Ekoizpen mailaren erabakia epe luzean.
 - Industriaren eskaintza kurba epe luzean.
5. Kontsumitzaileen jokaera.
 - Kontsumitzaileen lehentasunak..
 - Aurrekontu murriztapenak.
 - Kontsumitzaileen hautapena.
 - Baliagarritasun marjinala eta kontsumitzaileen hautapena.
6. Gizabanakoaren eta merkatu eskariak.
 - Gizabanakoaren eskaria.
 - Ordezte eragina eta errenta eragina.
 - Merkatu eskaria.

- Kontsumitzailearen soberakina.

METODOLOGIA

Elementurik garrantzitsuen klase magistrala dugu, zeinetan irakasgaia osatzen duten gai ezberdinak azalduko diren. Klase praktikoetan, irakasleak planteatutako ariketak ebatziko ditu. Jarduera ez presentzialei dagokienez, ikasleek materia landuko dute eta, zein banaka zein taldean, klase magistraletan analizatutako gaiekin erlazionatuta diren ariketak eta galdera teoriko-praktikoak ebatziko dituzte, hauek irakasleak ebaluatuko ditu.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	51		9						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	72	0	18						

Legenda: M: Magistrala
S: Mintegia
GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p.
GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra
TI: Tailer Ind.
GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 70
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 15
- Banakako lanak % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Lehenengo deialdian ebaluazioa mistoa izango da. Ikasturtean idatzizko azterketa bat egingo da zentroak ezarritako datan, zeinetan ikasleak ariketa teoriko nahiz praktikoak ebatziko dituen, honek azken ebaluazioaren % 70a osatuko du. Idatzizko interneten bidezko azterketa honetaz gain, kurtsoan zehar egindako lana ere kalifikatuko da, honek azken ebaluazioaren % 30a osatuko du:

1. Ikasleak 2 bloketan zatitutako praktikak egin beharko ditu, bloke bakoitza bi saiotan banatua.

2. Saiotetan, taldeka, problema bat aztertuko dute eta, klasea amaitu aurretik, denbora emango da aztertutako problemari buruzko galdera batzuk erantzuteko eta irakasleari entregatzeko.

3. Bloke bakoitzeko bigarren saioan, aurrekoaz gain, ikasle bakoitzak, era indibidualean, proposaturiko problemarekin erlazionaturiko test eta ariketa bat egin beharko du.

4. Ebaluaketaren kronograma:

- Enpresaren Teoria blokeari dagokion talde lan saioa (martxoaren 5-a, 2020). Amaitua.
- Enpresaren Teoria blokeari dagokion bigarren talde lan saioa (apirilaren 21-22-a, 2020). Taldeak ebatzi beharko duen problemaren enuntziatua eGelara igoko da apirilaren 21-ean 9:00-etan eta erantzuna irakasleari bidali beharko zaio email baten bidez apirilaren 22-an 21:00-ak baino lehen.
- Enpresaren Teoria blokeari dagokion bakarkako lana (apirilaren 23-a, 2020). Ikasleak ebatzi beharko duen problemaren enuntziatua eGelara igoko da apirilaren 23-an 17:00-etan eta problemaren ebazpena irakasleari bidali beharko zaio email baten bidez egun bereko 17:40-ak baino lehen.
- Kontsumitzailearen teoriari dagozkion bi talde-lanak maiatzaren 13an igoko dira, goizako 9:00etan, eta horiei dagozkien ebazpenak irakasleari bidali beharko zaizkio email bidez maiatzaren 14an, arratsaldeko 9en aurretik.
- Banakako lanari dagokion ariketa eGelara igoko Maiatzaren 15ean (ordu konkretua aurrerago iragarriko da) eta ariketa honi dagokion ebazpena irakasleari bidali beharko zaio email bidez 40 minutuko denbora esparru batean.

5. Ebaluazio jarraiko sisteman parte hartzeko ikasle batek aipaturiko lan guztiak burutu beharko ditu. Edozein lanetan parte ez hartzeak ikasleak ebaluazio jarraiko sistemari uko egin diola suposatuko du.

Egindako ariketa guztietan, idatzizko komunikaziorako gaitasuna eta pentsamendu analitiko eta hausnarketa kritikorako gaitasuna ebaluatuko dira.

Honetaz gain, taldean egindako lanen kasuan, irakasleak taldearen funtzionamendua ebaluatuko du.

Ikasle bakoitzaren kalifikazioa aipaturiko ebaluazioan haztatzeko galdeketa bat praktika-taldeetako pertsonei pasatuko zaie bere parte-hartzeak eta taldeko gainerako pertsonek ebaluatzen.

Ebaluazio jarraiko sisteman parte hartzen duen ikasleak edonoz ebaluazio honi uko egin ahal izango dio eta azkeneko ebaluazioko sistemari heldu.

Azkeneko ebaluazioko sistemari heltzen dion ikasleak idatzitako azkeneko interneten bidezko azterketa (Zentroak jarritako datan) egingo du. Azterketa honetan ikasleak ariketa bai teoriko bai praktikoak ebatziko dituen proba bakarria egingo du.

Aipaturiko proba bi zatiz osatuta egongo da:-

- Lehen zatia: ebaluazio jarraiko sistemari heltzen dioten ikasleek egindakoaren berdina izango da, eta azkeneko kalifikazioaren % 70 izango da.-
- Bigarren zatia: ebaluazio jarraituko sistemari heltzen ez dioten ikasleentzat da bakarrik, eta azkeneko kalifikazioaren % 30 izango da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Bigarren deialdian azken azterketa bat egingo da eta ebaluazioaren % 100 osatuko du.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Transparentziak eta ariketak interneteko Moodle plataforman eskuragarriak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

Gaztelaniaz:

- Microeconomía, 9ª edición. Robert S. Pindyck, Daniel L. Rubinfeld. Pearson Prentice Hall.

Ingelesez:

- Microeconomics, 9th Edition. Robert S. Pindyck, Daniel L. Rubinfeld. Pearson Prentice Hall.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Gaztelaniaz:

- Microeconomía intermedia, un enfoque actual, 8ª edición. Hal R. Varian. Antoni Bosch Editor.
- Introducción a la Economía. Microeconomía, 1ª edición. Paul Krugman, Robin Wells. Reverté.

Ingelesez:

- Intermediate microeconomics: a modern approach, 8th Edition. Hal R. Varian. W. W. Norton & Company.
- Economics, 2nd Edition. Paul Krugman, Robin Wells. Worth Publishers.

Aldizkariak

Irakaskuntza honen arduraduna den irakasleak zehaztuko du

Interneteko helbide interesgarriak

Irakaskuntza honen arduraduna den irakasleak zehaztuko du

OHARRAK